

IKASGAIAREN izena 1.7. Diseinuaren oinarriak	Kreditoak 6 ECTS
Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta bigarren SEIHILEKOA	
Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak	
Gaitasun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde-lana Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez. ○ Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. 	
Gaitasun espezifikoak: -Ezagupenak:	
Ikus-entzunezko hedabideetara aplikatutako teknologien ezagutza teoriko-praktikoa eta aplikazioa (argazkia, irratia, soinua, telebista, bideoa, zinema eta multimedia euskarriak).	
1.12. Irudi espazialaren eta espazioko errepresentazio ikonikoen ezagutza —hala irudi finkoan nola ikus-entzunezko irudian—, zuzendaritza artistikoaren osagaiena barne. Ikuspegi estetiko eta narratibotik begiratuta irudiek eta soinuek ikus-entzunezko euskarrietan eta ikus-entzunezko teknologietan dituzten harremanak ere ezagutza horien barruan sartzen dira. Baita ikusi-komunikaziorako eta irudiaren bidezko pertsuasiorako espezifikoak garatutako eredu psikologikoen ezagutzak ere.	
-Treibetasunak:	
2.7. Irudiaren konposizioaren teknikak eta prozedurak ikus-entzunezko euskarrietan aplikatzeko gaitasuna , lege klasikoen eta irudiaren historiaren higikunde estetiko eta kulturalen ezagutzatik abiatuta, informazioaren teknologia berrien bitartez.	
2.16. Diseinu grafikoaren eta multimedia eta hipermedia produktuen alorreko fase desberdinetan sorkuntza eta zabalkunde teknikak eta prozesuak aplikatzeko gaitasuna , ikuspuntu teoriko eta praktiko batetik begiratuta.	
Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari Ikasgai honek "Ikus-entzunezko zuzendari, gidoilari eta errealizadore" profilerako zein "ikus-eta soinu-produkzioaren eta posprodukzioaren diseinua" profilerako behar diren ezagutza eta gaitasunak eskaintzen dizkio ikasleari.	
Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana. <ul style="list-style-type: none"> ○ Metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa: tailerrak, praktikak, tutoretzak. ○ Elkarlanean oinarritutako metodologia. 	
Prestakuntza jarduerak Jarduera presentzialak (%40): <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskola magistralak eta teorikoak. ✓ Eskola praktikoak: kasu jakin batzuei buruzko ariketak. ✓ Kasuen azterketa. ✓ Talde-lanerako tutoretzak. Jarduera ez presentzialak (%60): <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasketa eta lan autonomoa. ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa. 	
Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema Ebaluazio jarraitua eta prozesu-ebaluazioa: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Autoebaluazioa, banakakoa %20 eta taldekakoa %10. 	

- ✓ Proba teorikoa: %30.
- ✓ Ariketa praktikoen portafolioa: %50.

Edukien laburpena

1) Tipografiaren hastapenak

- 1.1. Alfabetoa: ibilbide historikoa.
- 1.2. Anatomia eta moten sailkapena.
- 1.3. Mikro eta makrotipografia: irakurgarritasun tipografikoa eta irakurtzeko erraztasuna.

2) Diseinu grafikoaren oinarriak

- 2.1. Hurbiltasuna.
- 2.2. Lerrokadura.
- 2.3. Errepikapena.
- 2.4. Kontrastea.

3) Kolorea komunikazioan.

- 3.1 Kolorearen teoria.
 - Sintesi gehigarria: argi-koloreak. Ikus-entzunezko hedabideak.
 - Sintesi kengarria: pigmentuak. Hedabide inprimatuak.
- 3.2 Kolorea eta adierazkortasuna: harmonia eta kontrastea.
- 3.3. Kolorearen erabilera hedabideetan, hala ikus-entzunezkoetan nola inprimatuetan.
 - 3.4 Kolorearen erabilera. kolorea eta irakurgarritasuna.

Banakako ariketak:

- Ikaslearen bisita-txartela egin. Orijinalaren aldaerak egin, soilik baliabide tipografikoak erabiliz.
- Publizitate iragarpena egin eta maketatu. Baliabide tipografikoen erabilera. Edukien hierarkia. Kolorearekiko hurbilketa.
- Informazio-orri baten maketazioa. Edukien hierarkia eta irakurtzeko erraztasunaren azterketa.
- Elkarrizketa baten maketazioa. Testu eta irudien konbinazioa. Irudien erabileraren hastapenak.
- Hiru orriko erreportaje baten maketazioa. Honakoak landuko dira: orri biko konposizioa, testuen jarraitasuna, argazkien erabilera, kolorearen erabilera, etab.

Taldeakako lana:

- 8 orriko argitalpen baten diseinua eta errealizazioa. Ariketa honetan ikasleek beraiek egindako testuak eta argazkiak erabiliko dira. Argitalpen hau egiteko prozesuan ikasturtean zehar landu diren kontzeptu guztiak jarriko dira praktikan.